

# Arau heterosexualari intsumisioa

Gay eta lesbiana taldeek manifestaldiak egingo dituzte gaur Hegoaldean

Duela hogeitabost urte New Yorkeko Stonewall tabernan gay eta lesbianak Poliziaren kontra altxatu zirenetik, ekainaren 28a izaten da Gay eta Lesbianen Askapenerako Nazioarteko Eguna. Urtero mundu osoan ospatzen da data hau, eta homosexual eta lesbianen aldarrikapenen oihartzun berezia hartzen dute.

Hego Euskal Herrian, ekitaldi ugari antolatu dituzte azken egunotan bertako homosexual eta lesbiana talde desberdinek. Honela, joan den astean gaiarekin zerikusia zuten hitzaldiak, antzeslanak, filme proiektzioak eta bestelako ekitaldiak egin dira Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean. Iparraldean, berriz, ekainaren 28ak ez du oihartzun handirik. Izan ere, bertan homosexual eta lesbianak antolatu gabe daude eta ez dute ezer berezirik eratzten egun honetarako.

Azken asteko beroketaren ondoren, manifestaldiak egingo dira gaur iluntzeko 20.00etan hasita Hegoaldeko hiriburu guztietan. Bilbon Zabalburu plazatik abiatuko da, Donostian Bulebarretik, Gasteizen Andre Mari Zuriaren plazatik eta Iruñean Gaztelu plazatik. Hiriburuez gain, Arrasate (Gipuzkoa) eta Tuteran (Nafarroa) ere egingo dira ekitaldiak. Arrasaten 19.30-etan hasiko da eta Tuteran 20.00etan.

**INTSUMISIOA AURTENGO LELOA** Gay eta lesbiana taldeek intsumisioaren kontzeptua hartu dute gainera aurten,

Duela 25 urte Stonewallgo gertaerak jazo zirenetik, ekainaren 28a Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna izaten da. Horrexegatik, kolektibo hauek urtero-urtero euren aldarrikapenak kaleratzen dituzte egun hau iristean eta Hegoaldeko hiriburu guztietan manifestaldiak egingo dira gaur.

euren leloentzat. EHGAM, arau heterosexualaren kontra ezezik, eliza, armada, matxismoa eta homofobiarekiko ere intsumisioa agertzen da. Halaber, erasoak, giza eta lan bazterkeria eta gizar-tearen isiltasun laguntzailea salatu nahi ditu.

Lesbiana kolektiboek aukeratu duten lema, berriz, antzerakoa da: 'Arau heterosexualaren aurrean intsumisioak. Zergaitik zara heterosexuala?'. Lelo horren bidez, heteronomormo auzitan jartzea da euren helburua.

Aipatzekoa da, gay eta lesbianenak ez diren zenbait taldek eta alderdi batzuk bat egin dutela egun honetako aldarrikapenekin. Hala nola, Emakume Asanbladek, Egizanek, Zutik eta HBk, gaurko deitutako manifestaldietan parte hartzeko deia egin dute.



Euren aldarrikapenak kalera aterako dituzte gay eta lesbianek. SIMAL

### Eskerrak

EUSKALDUNON EGUNKARIAK eskerrak eman nahi dizkie gehigarri hau egiten lagundu duten EHGAMI eta lesbiana taldeei.

### EGITARAUA

#### Gaurko manifestaldiak

**Bilbo**  
20.00etan Zabalburu plazan. Ondoren, poteo-kalejira 'Amikiz Blai' txarangarekin

**Donostia**  
20.00etan Bulebarrean. Ondoren, afaria Txintxarrin

**Gasteizen**  
20.00etan Andre Mari Zuriaren plazan. Ondoren, jaia Elefante Blanco dantzalekuan.

**Iruñea**  
18.00etan Gaztelu plazaren okupazioa.  
20.00etan manifestaldia. Ondoren, herri-poteoa txaranga eta txistorrarekin.

**Arrasate**  
19.30etan Seber Altube plazan.

**Tutera**  
20.00etan Plaza Berrian

#### Gainerako ekitaldiak

**Bilbo**  
Ekainak 29: Agerian Lesbiana Taldeak, Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboak eta EHGAMek egindako txostenaren aurkezpena. 19.30etan La Bolsan.

Ekainak 30: Leopoldo Alasek idatzitako *Los de la acera de enfrente* liburuaren aurkezpena. 19.30etan La Bolsan. Antolatzaileak: Agerian Lesbiana Taldea eta EHGAM

Uztailak 1: Antzerkia 19.30etan La Bolsan. Antolatzaileak: EHGAM

Uztailak 3: 'Askatasun sexualen aldeko I. Martxa Ziklista'. Bilbo-Bilbo (43 kilometro). 09.00etan abiatuko da Arenaletik. Antolatzaileak: Agerian Lesbiana Taldea, Lesbiana Feministen Kolektiboak eta EHGAM. 20.00etan Gaijaia Txokolandan.

**Donostia**  
Uztailak 2: Neskentzako afaria eta jaia, Udal Alhondigan. Antolatzaileak: Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboak.

**Bizitzak**

Tartak eta infusioak

Torre kalea, 1

ALDE ZAHARRA BILBO

**ZULO TABERNA**  
BILBO ZAHARRA


Zuek bakarrik falta zarete

**ESKORIATZAKO UDALA**



"Desberdintasunik gabeko gizarte baten alde"

**PAP KATU**



JARAUTA - IRUÑEA

**Hontza**  
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4  
42 82 89 tel. - 43 12 56 faxa  
DONOSTIA



HEZKUNTZA, TERAPIA ETA IKERKETA SEXOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEA

Irekita dago hurrengo kurtsorako matrikula, sexologiako monitorea aholkularia eta diplomaduna izan nahi dutenentzat.

Irakasleen prestakuntza, arreta berezia OHOk eta Ertainetako ikastetxeei, Terapia, masajea eta hazkuntza pertsonala.

ATXURI kalea, 18 1.-esk. BILBO Tf.: 433 71 73

Kalamua kalea, 7 1.-ezk. ERROMO Tf.: 463 61 39

HERNANIKO OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUA



PATRONATO MUNICIPAL DE SALUD Y BIENESTAR SOCIAL DE HERNANI

Orohar edozein bazterketa mota gaitzesten dugularik, geure elkartasuna adierazi nahi dugu bereziki "Gay Harrotasunaren Eguna" honetan.

SANDIUSTERRI, 1 Tfnoa: 55 78 54 / Faxa: 55 58 62 20120 HERNANI